

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2023 Erabakia, otsailaren 7koa. Onespena ematea Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzako laguntzen 2023ko deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaien Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko "gauzako laguntzak" modalitateko laguntzak emateko oinarri arautzaileei. Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 12ko 12/2018 Foru Dekretuak aldatu zuen dekretu hori.

Foru Dekretu horretan ezarri ziren Arabako Lurralde Historikoko zein zona eta azpizonatan jardungo den aldi berean eta zein hurrenkera jarraitu behar zen Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko gauzako laguntzen deialdi bakoitzean.

Ezarritako ordenari jarraituz, 2023an deskribatutako 3 zonetako 6 zenbakiko azpizonetan jardun behar da.

1. zona, 6. azpizona: Urizaharreko, Bernedoko eta Lagrango Udaleko erakundeak.
2. zona, 6. azpizona: Burgeluko, Barrundiako eta Dulantziko Udaleko erakundeak.
3. zona, 6. azpizona: Erriberagoitiko eta Lantarongo Udaleko erakundeak.

7. artikulua arabera, urtero onetsiko da kasuan kasuko laguntza deialdia, eta bertan, jarduketa azpizonez gain, hauek ere sartuko dira: eskaerak aurkezteko epea eta lekua, dirulaguntza egotzita duen aurrekontu kreditua eta, hala behar izanez gero, espedienteak sailkatzeko irizpide objektiboak, eskaerak aurkezteko inprimaki normalizatua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta dirulaguntzaren gutxieneko edo gehienezko zenbateko baliokidea.

Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan bada kreditua gauzako laguntza horietarako; hain zuzen ere, 40101. G/4594000/65000402 "landa bideak kontserbatzeko obrak" partidan. Hortaz, horien deialdia onetsi eta urte horretako jardun eremu geografikoa finkatu behar da.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea gauzako laguntzen deialdia, 2023an Arabako landa bideetan mantentze lanak egiteko. Hona hemen zehaztatsunak:

Jarduteko eremu geografikoa: 3 zonetako 6 zenbakiko azpizonak, akordio honen I. eranskina arabera.

— Eskaerak aurkezteko epea eta lekua:

• Aurkezteko epea: 15 egun baliodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

• Aurkezteko lekua: eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoetan. AFAREN egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoa

baten edo BAKO sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

- Dirulaguntza egotzita den aurrekontu kreditua: 450.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2023rako gastu aurrekontuko 40101. G/4594000/65000402 “landa bideak kontserbatzeko obrak” partidaren kontura.

- Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak: deialdi honetan, oinarri arautzaileen 6. artikuluan jasotzen dira. Erakunde bakoitzak Arabako Foru Aldundiaren bide erregistroan sartuta dituen bideen luzeraren arabera, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ezartzen da, ondokoaren arabera:

Erakunde bakoitzeko gehienez: Ezein erakundek ezin izango du jaso gauzazko laguntza 20.000,00 eurotik gorako balio baliokidean, ekainaren 27ko Foru Gobernu Kontseiluaren 32/2017 Foru Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



I ERANSKINA

2023KO DEIALDIKO JARDUKETA AZPIZONAK

1. ZONA – 6. AZPIZONA		
UDALERRIA / ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (Km)
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	ARABAKO MENDIALDEA	49,15
BAROJA-ZUMENTUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,70
FAIDUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,23
LOTZAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,02
MONTORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,03
PAIUETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,74
URIZAHARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		19,43

BERNEDO	ARABAKO MENDIALDEA	98,01
ANGOSTINAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,60
ARLUZEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,31
BERNEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,72
MARKIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,38
NAVARRETEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,80
OKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,98
KINTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,25
DURRUMA KANPEZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,96
URARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,14
URTURIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,26
VILLAFRÍAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,61

LAGRAN	ARABAKO MENDIALDEA	50,66
LAGRANGO UDALA		39,28
PIPAÓNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,38

2. ZONA – 6. AZPIZONA		
UDALERRIA / ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (Km)
DULANTZI	ARABAKO LAUTADA	41,22
DULANTZIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		35,56
EGILETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,66



BARRUNDIA	ARABAKO LAUTADA	96,87
BARRUNDIAKO UDALA		1,29
AUDIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,91
DALLOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,15
ELGEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,91
ETURAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,95
ETXABARRI URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,33
GEBARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,39
HEREDIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,55
HERMUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,67
LARREKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,57
MARIETA – LARRINTZARKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,31
MATURAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,80
MENDIXURKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,30
OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,74
BURGELU	ARABAKO LAUTADA	62,96
AÑUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,17
ARBULUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		10,76
ARGOMAIZKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		15,31
BURGELUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,42
GAZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,78
IXONAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,52

3. ZONA – 6. AZPIZONA		
UDALERRIA / ERAKUNDEA	KUADRILLA	BIDEEN LUZERA (Km)
ERRIBERAGOITIA	AÑANA	130,58
ERRIBERAGOITIKO UDALA		13,88
ANTEZANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,21
ANUNTZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,60
ARREOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,47
ARTATZA-AXKOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,24
BARRÓNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,65
BASQUIÑUELASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,59
CAICEDO SOPEÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		4,61
HEREÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		9,76
LASIERRAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,57
LECIÑANA OKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,35
MORILLASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		7,29
ORMIJANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,61



PAÚLGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		1,13
POBESKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,56
SUBIJANA MORILLASKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,70
TUYOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,04
VILLABEZANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,38
VILLAMBROSAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		8,14
VILORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		2,20
VILLALUENGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		3,60
LANTARÓN	AÑANA	114,69
ALCEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,30
BERGÜENDA KO ADMINISTRAZIO BATZARRA		16,24
CAICEDO YUSOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		13,78
COMUNIÓNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA		11,27
FONTECHAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		12,67
LECIÑANA DEL CAMINOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		5,43
MOLINILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		6,23
PUENTELARRÁKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		0,27
SALCEDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		18,80
TURISOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA		13,70